

T01.Perpausak 2

Izen sintagmaren osagaiak

IZENA (txori, Ane) eta izenordain (ni, zu...)

Adjektiboa: izenondoa (txiki, eder...) eta izenlaguna (ahizpaREN, etxeKO...)

Determinatzailea: artikulua (katua, umeak...), zenbatzailea (katu bat, ume asko...) eta erakuslea (katu hori, ume haiek...).

Aditz sintagmaren osagaiak

ADITZA: egin dugu, goazen...

Adberbioa: adizlaguna (buruz, kalera, menditik...), eta aditzondoa (orain, poliki, gaur, berandu, astiro, gaizki...)

Osagarriak: liburua (ZER-NOR);Joni (Nori).

7.-Lotu zutabeetako izenlagunak, izenak eta izenondoak, izen-sintagmak osatzeko.

IZENLAGUNA	IZENA	IZENONDOA
1.Erlearen	txirrindulari	dantzagarria
2.Lasterketako	ezten	azkarra
3.Gazteluko	musika	zorrotza
4.Jaialdiko	harri	sendoak

1. Erlearen ezten zorrotza.
2. Lasterketako txirrindulari azkarra.
3. Gazteluko harri sendoak.
4. Jaialdiko musika dantzagarria.

9.-Osatu perpausak aditz-sintagmaren osagarriekin.

- Adibidea: Oparitu diogu > Guk amari liburua oparitu diogu
- Zuk berari Mireni amari Kepari Joni abestu zenion.
- Astoak belarra/fruta jan zuen.
- Haizeak zuhaitza/harresia bota du.
- Zuek liburua/koadernoak itzuli diozue?
- Lapurrak telefonoa/mobila ostu zigun.

10.-Erantzun galderei, adberbioak erabiliz.

- Noiz duxatu zara azkenekoz?
Gaur/Gaur goizean duxatu naiz azkenekoz.
- Nola mugitzen dira barraskiloak?
Motel/Makal mugitzen dira barraskiloak.
- Non duzu liburu hau?
Hemen dut/Hor dut liburu hau.
- Nola egin zenuen azken azterketa?
Ondo egin nuen azken azterketa.
- Zer ordutan esnatzen zara astean zehar? Eta asteburuan?
Asteazkenean esnatzen naiz, eta asteburuan bederatzietan/bederatziak esnatzen naiz
- Zer moduz sentitzen zara eguzkia dagoenean?
Pozik/Alai sentitzen naiz eguzkia dagoenean.
- Non bilatzen duzu informazioa lan bat egiteko?
Interneten/Liburuetan bilatzen dut informazioa lan bat egiteko.

11.-Ordenatu esaldiak eta gero idatzi subjektuak.

- katuak / amaren / apurtu / zaharra/ loreontzi / du
Katuak amaren loreontzi zaharra apurtu du. Subjektua: Katuak
- inauteriak / Lantzeko /dira / ospetsuak / oso
Lantzeko inauteriak oso ospetsuak dira. Subjektua: Lantzeko inauteriak
- gorri / dut / hartu / hau / tomate / baserriko / nik
Nik baserriko tomate gorri hau hartu dut. Subjektua: Nik
- zorrotza / da / ikusmena / arranoaren
Arranoaren ikusmena zorrotza da. Subjektua: Arranoaren ikusmena

12.-Osatu predikatuak, parentesi arteko informazioa erabiliz.

A zer pareak!

Zipi eta Zape bikiak dira (bikiak izan). Gazte hauek beti txantxetan ibiltzen dira/txantxetan dabilta (txantxetan ibili). Oso bihurriak dira; izan ere, anaia bikiek ezin hobeto ulertzen dute elkar (ezin hobeto elkar ulertu)!

